




MAITASUN SUA



DBH 3

FITXA TEKNIKOA

AUTOREA: Aitor Arana

IZENBURUA: Maitasun sua

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Amorebieta-Etxano, Ibaizabal, 2013

ORRIALDE KOPURUA: 127

BILDUMA: Ekin, 40

ISBN: 978-84-8394-787-6

ADIN TARTEA: 14 urtetik aurrera

IRUZKINA

Homosexualitatea eta haren jazarpena gaitzat hartzen duen eleberria. Narrazioak dokumentu historiko batekin espekulatzen du, XIV. mendean sutan hil zituzten bi gazte homosexualen istorioa kontatzeko. Gaur egungo gaztetxo batek topatzen du dokumentu hori (hau ere homosexuala), eskolarako lan bat prestatzen ari dela. Kontakizunak Garesen gertatzen dira.

Testuak baditu ezaugarri batzuk ikasgelako irakurketa orokor izateko balioesten dutenak: testua arina da, elkarrizketa askokoa, pertsonaia gutxikoa eta guztiz lineala. Gaia sentikortasunez erakusten zaigu, topikoez gehiegi abusatu gabe, eta



pertsonaiekiko enpatia sortzeko gaitasuna du. Nerabeen eguneroko bizitzan txertatuta dago.

Dena den, liburua motza da hainbat alderditan, bereziki gaiaren tratamendu agerikoegia egiten duelako, ia panfletarioa, eta pertsonaiak gaiaren aldarrikapenen zerbitzura erabiltzen dituelako, naturaltasuna galaraziz euren jardunean.

IKASLEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

Gaiak: (1) homosexualitatea; (2) erlijioa; (3) ezberdinari egindako jazarpena; (4) dokumentu zaharrak, eskuizkribuak.

Prozedurak: eztabaidak gaiaren inguruan. Gaiari dagokion dokumentuen bilaketa. Bisitak dokumentazio zentroetara. Gaiari buruzko adituekin topaketa.

1.- Homosexualitatea. Testuan zehar maitasun istorio arrunt gisan agertzen da pertsonaien maitasun afera, oztopo nagusia gizartearen onarpen falta izanik. Era berean, pertsonaia batek sexualitatearen anbiguotasunaz hitz egiten digu "...jakin dut kontua ez dela edo beltza edo zuria, gris tonu ugari dagoela...".

Bi ardatz hauek gogoan izanda, onarpenari buruzko bi galdera garrantzitsu bezain zail agertzen zaizkigu:

Lehena: Zergatik ezartzen da sexualitate eredu bat beste aukeren gainetik? Norbere sexualitatea besteek arautu, baimendu, onartu behar dute?

Bigarrena: Zein eredu sexual aukeratu dut niretzako? Nola jakin zein den nire "kolore" sexuala?

2.- Erljioa. Testuan zehar bi erlijio sinismen nabarmentzen dira. Judutarra ireki eta ulerkor bezala agertzen da. Kristaua fanatiko eta erasokor.

Gaur egungo garaietan hala ikusten al ditugu bi erlijio hauek? Zein izan da euren bilakabidea? Nola gertatu da bilakabide hau?

Erljio Kristauak eta Judutarrak testu sakratuak konpartitzen dituzte (Itun zaharra). Euren helburu erlijiosoak une batez ahaztuta, ipuin bildumatzat har litezke testu hauek, mitologiako beste hainbat ale bezala. Esaterako munduaren sorrerari buruz dauden sorta bat testu bil litezke (mitologia bildumetarik) eta bibliakoarekin batera irakurri.

Erljioen historia arakatzea proposa daiteke. Ikerlari emankorrena [Mircea Eliade](#) da, gaur gaurkoz.

3.- Ezberdinari egindako jazarpena. Liburuan homosexuala nola jazartzen den erakusten da. Jazartzen sexuala da hori. Gizarte askotan ematen da, gurean ere bai. Badira beste jazartzen batzuk ere. Nor jazartzen da? Zergatik? (Merezi du gogoratzea euskalduna jazarria izan dela, kultur menperakuntza deritzon).)



4.- Dokumentu zaharrak, eskuizkribuak. Idazketa mekanografiatua baino lehen, eskuizkribuak garrantzi handia eduki du. Denboran atzera eginez, hamarkada bakoitzeko dokumentu pare baten bilduma eginez, kaligrafiaren eta testugintzaren historian bidaiatu daiteke. Azken portua idazketa ikonografikoa-ideografikoa izan

liteke, Egipto/Sumeria/Txina lurraldeetako sorreretara joanez gero. Beste bide batetik jo eta bertako idazketan atzera egitea nahiago bada, errotarien idazketara irits gaitzke, Lazarragaren eskuizkribuetan barrena pasata (Mitxelenaren “Testos Arcaicos Vascos” liburukoak ahaztu gabe).